


EUSKADIKO ORKESTRA



Garikoitz Mendizabalek eta Euskadiko Orkestrak 'Gutizia' diskoa kaleratu dute

Disko bikoitz berri honek jatorri ezberdineko egileek idatzitako bederatzi lan eta 84 minutuko musika biltzen ditu, euskal kulturari aski sustraituta dagoen instrumentu bat, txistua, munduan barrena ezagutzera emateko.

'Gutizia' Garikoitz Mendizabal txistulariak urte askotan egindako lanaren eta erreperitorio-bilketaren emaitza da: 'Besterik gabe, zuen eskuetan jartzen dut nire denbora, gogoia eta ilusioa'.

La grabación ha sido dirigida por el director asociado de Euskadiko Orkestra, Jaime Santonja: 'Emaitza paregabea da, zeharkako eraginak ditu eta parte-hartzaile guztientzat izan da aberasgarria'.

Hasiera batean bide ezberdinetatik doazen bi munduk bat egin dute une batean eta *Gutizia* eman dute emaitza gisa. *Delicatessen* moduko lan honek modu naturalean uztartu ditu euskal kulturari hain sustraituta dagoen instrumentu bat, txistua, eta orkestra sinfoniko bat. Horretan jardun ziren lanean otsailean Miramonen Garikoitz Mendizabal eta Euskadiko Orkestra, txistu eta orkestrarako idatzitako obra-sorta baten grabazioa egiten eta ondorengo hedapena prestatzen. Lan hau [Orpheus Classical](#) zigilupeko disko bikoitz batean argitaratu berri da, eta dagoeneko eskuragarri dago saltoki nagusietan eta Spotify eta iTunes bezalako plataforma digitaletan. Gainera, Durangoko Azokan ere eskuratu ahal izango da.

EUSKADIKO ORKESTRA

Grabazioak guztira **bederatzi obra** hartzen ditu barne, **batzuk berriki idatziak eta besteak bertsio berri gisa aurkeztuak**. Jatorri ezberdinetako musikagileek idatzitako lanak diren heinean, musika-bilduma hau bidaia bat da bere horretan. **Lan hauetako gehienek honako hau estreinaldia dute**, eta historia eta motibazio ezberdinak dituzte: Kenyari omenaldi bat (*Karibu Peponi*); gizakiak bizitza osoan barrena bizitzen dituen emozioen erakustaldi bat (*Leyenda*); txistuaren aldarrikapena orkestrarekin parekatzen den instrumentu gisa (*Symphony-Concerto*); edo Libanoko konpositore Naji Hakimena, euskal doinuak izan dituen inspirazio-iturri txistua instrumentu-bakarlari gisa aurkezteko hiru mugimenduko kontzertu baten forma klasikoan (*Txistu eta orkestrarako kontzertua*).

Bilboko Txistulari Bandaren zuzendari **Garikoitz Mendizabal** (Zestoa, 1973) txistuaren interpretazioan, defentsan eta sustapenean pertsonaia oso garrantzitsua da. Azken urteetan lankidetzat-sorta nabarmena egin du musikagile garaikideekin erreperitorio berriak jorratzeko asmotan. Esan daiteke *Gutizia* horren guztiaren fruitua dela. Horrela dio berak:

“Ukaezina da musika berria den neurrian, txistu eta orkestrarako literatura areagotu eta aberasten duela, zalantzarik gabe. Eta hori izan da, urte hauetan guztietan, nire nahia eta nire saiakera ondorengo belaunaldiei begira. Bistakoa da, baita ere, euskal musikagileek zein atzerrikoek idatzi dutela hain gurea den instrumentuarentzat. Etorkizunean izango diren txistulariei utzi nahi nieke orkestra handi batez lagundurik jotzeko aukera eta material gehiago. Bide batez, oso ohikoak ez diren musika-tresna batzuekin egiten ari diren moduan (akordeoia, gitarra, etab.), txistuak ere izango du, naturaltasunez, orkestra sinfoniko batekin aritzeko aukera gehiago, bai Euskal Herrian bai atzerrian. Euskal kulturaren nazioartekotze-prozesuan tresna eta baliabide ezin hobea izan daitekeela sinetsita nago, baietzatu ahal izan baitut zeinen erreakzio zirragarria izan ohi duten entzuleek gure txistua entzutean orkestra baten laguntzaz. Besterik gabe, zuen eskuetan jartzen dut nire denbora, gogoa eta ilusioa”.

Euskadiko Orkestrarentzat bi munduok uztartzea euskal kultura sustatu eta hedatzeko bokazioari jarraipena emateko abagunea da, oraingo honetan nabarmen sustraitutako eta tradizio handiko instrumentu baten bidez. Lankidetzat honek bat egiten du aurreko beste batzuekin: txalaparta (Kalakan), gaita (Gaiteros de Elciego) eta trikitixa (Kepa Junkera), besteak beste. Proiektu-sorta horren guztiaren xedea euskal kulturaren ondare aberatsa jaso, defendatu eta bultzatzea izan da.

Proiektuko gainontzeko parte-hartzaileak

Euskadiko Orkestraren zuzendari elkartu **Jaume Santonja** izan da *Gutizia*-ren zuzendaritza musikalaz arduratu dena. Bere hitzetan:

“CDaren grabazio honek hasieratik egin zidan ilusio berezia, Euskadiko Orkestraren zuzendari elkartu gisa egindako lehen kolaborazio profesionaletako bat izan baitzen. Plazer handia izan da Garikoitz ezagutzea, baita euskal musika tradizionalaren munduan pixka bat sartzea ere. Historikoki, instrumentuen bilakaera horizonteak hedatzea eskatzen zuten instrumentista birtuosoei lotuta egon da, bai teknikoki, bai intelektualki. Eta hori da, argi eta garbi, proiektu

EUSKADIKO ORKESTRA

honetan gertatzen dena, Garikoitzen birtuosismoak ez ezik, bere ikuspegiak eta behar intelektualek ere txistuaren horizonteak zabaltzera eramaten baitute. Errepertorioa zabaltzearen bidez egiten du, ia obra guztiak propio horretarako sortuak izan baitira, eta instrumentu tradizional hau solista paperean agertzea ahalbidetzen baitute. Eraitza paregabea da, zeharkako eraginak ditu eta parte-hartzaile guztientzat izan da aberasgarria. Poztekoa da proiektu hau grabazio bat ere izatea, jasota uzten baitu egindako lana. Espero dezagun ez dela horretan bakarrik geratuko eta benetan pizgarria izatea formatu hori zuzenean esperimentatu ahal izateko etorkizuneko emanaldietan, bai bertan, bai atzerrian”.

Jaume Santonja, Garikoitz Mendizabal, konpositore eta orkestraz gain, proiektu honetan honakook ere parte hartuko dute: **Naroa Intxausti sopranoa**, **Francisco Escudero Kontserbatorioko haur abesbatza** (Eva Ugaldek zuzentzen duena), eta **Iñaki Telleria** eta **Marc Blanes** produkzioan eta soinuan.

Fitxa teknikoa

CD 1: 40'

- Txistu eta orkestrarako kontzertua.....Naji Hakim [13']
- Symphony-Concerto.....David Johnstone [22']
- Reflexiones sobre la longitud del vientoFernando Velázquez [5']

CD 2: 44'

- Karibu Peponi.....Javier Martinez Campos [11']
- Zaharra.....Anonimoa (Orkestrazioa: Pierre Wekstein) [4']
- Leyenda.....Eduardo Moreno [17']
- Iruten ari nuzuAnonimoa (Orkestrazioa: Kepa de Miguel) [4']
- Atzo ttun ttun.....Anonimoa (Orkestrazioa: Kepa de Miguel) [5']
- Hora stacattoGrigoras Dinicus (Orkestrazioa: Iñaki Urkizu) [3']

Parte-hartzaileak:

- Garikoitz Mendizabal, txistularia.
- Euskadiko Orkestra.
- Naroa Intxausti, sopranoa.
- Francisco Escudero Kontserbatorioko Haur Abesbatza. Zuzendaria: Eva Ugalde.
- Jaume Santonja, orkestra-zuzendaria.
- Iñaki Telleria eta Marc Blanes, produkzioa eta soinua.

EUSKADIKO ORKESTRA

ERANSKINA

Diskoa osatzen duten obrei buruzko oharrak

CONCERTO PARA TXISTU

Naji Hakim (1965)

Concerto para txistu Garikoitz Mendizabali eskainia dago eta hark estreinatu zuen 2019an Beiruten Libanoko Orkestra Filarmonikoarekin, Fouad Fakhouriren batutapean.

Kontzertu honek obertura italiarraren eredua jarraitzen du hiru mugimendutan: *Allegro – Moderato – Allegro*. Forma hirutarreko *Allegro moderato*aren irekiera "Adieu, fillette de Bayonne" doinuaren oinarritzen da; erdiko mugimenduak, *Mestok*, "Lurraren pian sar nindaiteke" doinuaren gainean bariazio multzo bat garatzen du; azkenik, *Prestok*, lana *rondó* alai eta burlesko batekin amaitzen du.

SYMPHONY – CONCERTO, txistu bakarlari eta harizko orkestra sinfonikorako

David Johnstone (1959)

Konpositorearen helburu nagusia txistu bakarlariaren erreperitorioari gehikuntza garrantzitsu bat egitea izan da, bai idazketaren zailtasunean, bai egitura sinfonikoan, bakarlaria orkestrarekin maila berean lehia baitaiteke eraldaketa sinfonikoa eta garapen organikoa erakusten duen musika-sorkuntza batean, hortik datorkio izenburua. Lana espirituala da, zalantzarik gabe, baina ez 'erlijiosoa', ez behintzat zentzu tradizionalen.

Lehenengo mugimendua 'Otoitza' bezala hasten da, film erromantikoaren girotzea, bakarlari zati bat batzuetan kantabilea eta beste batzuetan deklamatorioagoa duena; hala ere, orkestra-akopainamenduak gero eta gehiago txertatzen du bakarlari zatia etsituta eta abailduta iraultzen den tentsioa.

Bigarren unean sartzen garenean, orkestrak bakarlari osoa 'uzten' du, bere bidea kadentzia luze baten forman aurkituz. Atsedetik gabe, Johnstone-k hirugarren mugimendu azkarra egin du, 'Liberazioa' izenekoa. Geroago, bakarlariak, neurri handi batean, garapenaren sekzioko prozedura gehienak menderatzen ditu; propulzio handiko uneak daude, tentsio eta erlaxazio nahasketa handi bat, bakarlariaren eta orkestrako hari-sekzioko bakarlarien kadentzia sotil baina kementsu bat, eta obra amaiera distiratsu zirraragarri batera eramateko koda loriatsu eta garaile bat.

Felix Palomerorentzat dago eskainia obra, 'nigan sinesteagatik', konpositorearen hitzetan.

REFLEXIONES SOBRE LA LONGITUD DEL VIENTO

Fernando Velázquez (1976)

Neurtu dezakezu airearen luzera?
Espazioa edo denbora da?

EUSKADIKO ORKESTRA

KARIBU PEPONI, txistu eta orkestra sinfonikorako Javier Martínez Campos (1989)

Karibu Peponi 2021ean konposatutako lana da, txistu bakarlari eta orkestra sinfonikorako, Garikoitz Mendizabalen enkarguz idatzia. Hari dago eskainia, konpositorea eta txistularia elkartzen dituzten adiskidetasun, esperientzia eta kolaborazio profesionalengatik eskainia.

Kenyari, bertako jendeari, florari eta faunari egindako omenaldi txiki bat da, eta hortik dator izenburua: 'Karibu Peponi'-k euskarara itzulita 'Ongietorri paradisura' esan nahi du. Martínez Campos 2019an herrialde horretan egon zenean, Samburuko tribu bateko gerlari bat ezagutu zuen, hiru zuloko flauta batekin inprobisatzen zuena. Instrumentu horrek txistua gogorarazi zion ezinbestean eta, beraz, egokia iruditu zitzaion omenaldi honetan protagonista izatea.

Musikalki, *Makru* erritmo afrikarra erabiltzen du lanak, eta aldakuntza erritmiko, harmoniko eta melodikoen bidez garatzen diren bi gaietatik abiatuta eraikia dago. Bakarlariaren eta orkestraren arteko etengabeko elkarriketan, emaitza bezala bakarlariarentzako exijentzia tekniko eta espresibo handiko konposaketa bat ematen du (bai notengatik eta abiaduragatik, bai fraseo eta musikalitateagatik). Konposizioa kolorista, efektista eta zati orkestralean handizalea da.

ZAHARRA

Anonimoa. Moldaketa: Luis Aramburu. Orkestrazioa: Pierre Wekstein

Melodia zaharra eta egile ezezagunekoa. Txistularientzako Zumarragako txistulari Martin Elolak egin zuen ezagun eta gerora askotan entzun dugu txisturako. Melodia hainbat alditan erabili izan zuen Pablo Sorozabalek, besteak beste zarzuelatan. Bertsiorik ezagunena Luis Aramburuk egin zuena da eta hain zuzen moldaketa hau orkestratu du Pierre Wekstein musikari frantsesak.

LEYENDA (poema sinfonikoa) Eduardo Moreno (1977)

Argi eta garbi, partitura hau gizakiak bizitzan zehar izaten dituen emozioak erakusteko saiakera bat da. Transmitzeko bozeramailea izaki txiki bat besterik ez da, gutako edozein bezalakoa edo, hobeto esanda, instrumentu xume bat: txistua.

Berari bere hizkuntza, gauzak esateko modua kentzen diogu, bere nortasuna kentzen diogu bere testuingurutik ateraz eta edozein pertsonak sentitzen dituen sentimenduak erakusteko aukera ematen diogu: poza, maitasuna, mina, borroka, eta... zergatik ez? Etsipena.

Leyendak istorio bat kontatzen du, baina txistuari tradizioak sortutako artifizio guztiak kentzen dizkio, bere soinuarekin gizaki guztiek mende luzez sentitzen dituzten bizipen sakonenak erakutsi ahal izateko.

EUSKADIKO ORKESTRA

IRUTEN ARI NUZU

Anonimoa. Orkestrazioa: Kepa de Miguel Garbizu

Jean Dominique Sallaberyk biziki preziatu eta ezagun den *Chants Populaires du Pays Basque* izeneko kanta-bilduma argitaratu zuen 1870 urtean.

Iruten ari nuzu kantaren inguruan eginiko adierazpenetan "romance labourdin" modura deskribatu zuen, agian doinuak azalarazten zuen xarma ikusita, baina bertsoek badute bai, halako kutsu ironikoa atzetik.

Letra, etxean gehiegi lan egiteagatik neskazahar gelditu ahal izango den irule baten inguruan mintzo da, eta egoera honek zein gutxi kezkatzen duen emakumea.

Lehenengo musika-konpasek txistuari ematen diote protagonismo guztia, non berau arduratuko den doinua aurkezteaz. Ondoren, zurrumurru edota oihartzun baten modura, fagotak goruaren lehen mugimenduak gogoratuko ditu, txistuak eta gorulariak elkarrekin solasten duten bitartean. Amaitzeko, orkestra eta perkusioa erritmoa indartzen joango dira eta, txistuak era librean joko du guztien gainetik, irulearen ezadostasuna eta ironia gorakor horren adierazgarri.

Mendizabalen asmoak kontuan harturik, jatorrizko partitura moldatu behar izan du egileak, iruleak berak abes dezan doinu zoragarri honen letra txistuarekin batera.

ATZO TTUN-TTUN

Anonimoa. Orkestrazioa: Kepa de Miguel

Doinu herrikoi hau aski ezaguna eta erabilia izan da. Resurreccion Maria de Azkuek eta Aita Donostiak euren kanta-bildumetan jaso zuten bere garaian.

Testuak pobreek jasan ohi izaten duten zoritxar eta patu beltz horren inguruan jarduten du.

Txistuak orkestraren laguntzaz aurkezten du doinua lehen aldiz, tonu-aldaketa baten ondorioz kantariak berreskura dezan. Ohar gabeko erritmo-aldaketa batek azeria oilategian sartzen den unean murgiltzen gaitu. Orkestrak eta txistuaren doinu jostagarriek gertaera irudikatzen laguntzen digute haur-abetesbatza batek, oihartzun baten modura, letra abesten duen bitartean.

Obra doinuaren bigarren esposizio batekin amaitzen da, oraingoan oso era eta erritmo motelean jota, guztia galdu dunaren tristezia agerian jarri nahirik.

Obra Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorioko 2020 ikasturte-amaierako emanaldirako idatzi zuen egileak. Hiru atal ezberdin ditu eta bertan, txistua eta orkestraz gain, abeslari batek, haur-abetesbatza batek, pianoa eta baxu elektrikoak hartzen dute parte.

EUSKADIKO ORKESTRA

HORA STACCATO

Grigoras Dinicu (1889-1943)

Hora Staccato errumaniar dantza-estiloko lan labur eta arina da, Grigoras Dinicu errumaniar konpositoreak idatzia eta, zalantzarik gabe, biolinaren birtuoso guztien lanik gogokoenetako bat da, batez ere Jascha Heifetz biolinista handiak ospetsu egin zuenetik.

Grigoras Dinicuk, konpositore eta biolinista bikaina, Bukaresten jaioa XIX. mendearen amaieran, biolina ikasi zuen Carl Fleschekin (instrumentu honen pedagogo handia). Obra hau 1906an konposatu zuen Bukaresteko kontserbatorioan graduatzeko, berak interpretatuz.

Bere garaiko musikari unibertsala izan zen, jendearekin lotura handikoa, biolina jotzean konplizitate sentimendu hori transmititzen zuena, eta kontzertu klasikoak zein herrikoiak zuzendu eta interpretatzea maite zuena. Musika arinaren munduan jardun zen, inprobisatuz, Europa erdiko kafe, jatetxe, hotel eta *nightclub*ak zeharkatuz.

Hora Staccato mota guztietako instrumentuetarako egokitu da, gitarra eta tronpeta barne. Azken honen bertsio ezagunena Harry Jamesena da.

Jascha Heifetzek berak, G. Dinicuren birtuosismoaren miresle eta biolinaren birtuoso handienetako batek, lan honen transkripzio bikaina egin zuen biolin eta pianorako.

Oraingo honetan Iñaki Urkizuk txistu bakarlari eta orkestrarako moldatu du.